

JULIAN SCHNABEL SUMMER

MARGOAK ETA ESKULTURAK 1982 - 2007

tabacalera donostia

Uztailak 28 - urriak 21

11:30etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:30etara
(Astelehena itxita)

Prentsaurrekoa: uztailak 26, osteguna, 11:30etan

Inaugurazioa: uztailak 27, ostirala, 19:30etan

Bisita gidatuak

12:00etan / 18:00etan (euskaraz)

13:00etan / 19:00etan (gaztelaniaz)

Taldeak: 677 681547

Visites en français / Tours in English: 677 681547

www.tabacalera.eu



© J.M. Pemán

Julian Schnabelekin Tabakalerako eraikina 2006ko udan bisitatu genuen lehenbiziko aldiz. Donostiarekin duen harremana oso estua denez, bazuen eraikinaren berri eta hango espazioak ezagutzeko gogo bizia ere bazuen. Julian Schnabelekin, haren mailako handitasuna duen artistarekin, halako une bat bizitzeko aukera eta espazio horiek bere begiradak gidatuta bezala behatu ahal izatea bizipen interesgarria izan zen, benetan. Gainera, barrutia hutsik eta garbi ikusteko moduan zegoen lehenengo aldia zen.

Juliani zirrara eragin zion eraikin handi horrek, bere industria izaera eta historiaren pisua, artean, mantendu egiten zituela; eta, hala, bere belaunaldiko artistei buruzko talde erakusketa bat antolatzea proposatu zigun. Proposamen hori Tabakalerakook begi onez hartu baina eraldatu egin genuen eta fabrikako espazioak betetzeaz, bera, bere artelan harrigarriekin, arduratzeko gonbidapena luzatu genion. Tabakalerako espazio apartei aurre egiteko ahalmena duten artistak ez dira asko eta, horietako bat, zalantzarik gabe, Julian Schnabel da. Bere lanek duten indarragatik eta formatuengatik, eraikineko espazio ahalsuekin hartu-emanen egokiro jartzeko gai izango lirateke. Artistak berak, gainera, bere lana Donostian erakusteko interes berezia izan du; hiriarekin duen lotura estua baita, oso.

Schnabelek agertu du, jada, halako erronkei aurre egiteko duen gaitasuna: 1987an Sevillako Cuartel del Carmenen prestatu zuen instalazioan ere, berak egindako neurri itzeleko lanak egokitu gabeko espazioetan jarri ziren ikusgai. Aldi hartan bere bihotz basatiak txunditu egin ninduen, halako espazioekin lehiatzeko zuen gaitasun harrigarriaz ohartuta. Tabakalerako erakusketa beste erronka bat da, bai artistarentzat eta bere lanarentzat; bai guretzat, ezinbestean; bai eraikinarentzat, honako proiektu paregabe honen onuradun nagusietako bat, zalantzarik gabe, eraikina bera izango baita.

2007ko urtean Schnabelek erakusketak antolatu ditu benetan izaera berezia duten hainbat espaziotan, esate baterako, Erromako Palazzo Venezian eta Alemaniako Schloss Dernenburg-en. Halako maila handiko artista den Julian Schnabelen ibilbidean, Tabakalerako erakusketa ere erreferentziatzkoa izango dela uste dugu. Hainbat dira beren lanak gure eskuetan jarri dituzten bildumagileak eta horiei gure esker ona agertu nahi diegu. Artistari berari ere, eskerrak eman behar dizkiogu, proiektua gauzatzeko orduan buru-belarri aritu delako lanean, gogoz eta erabateko eskuzabaltasunarekin. Modu horretan, Kultura Garaikideko Nazioarteko Gune izateko ibilbidearen hastapenetan, bultzada ederra eman digun.

Joxean Muñoz
 Tabacalerako Zuzendari Nagusia
 (Donostiako Kultura Garaikideko Nazioarteko Gunea)



© Mondino

SUMMER - JULIAN SCHNABEL

Artelan baten materialtasuna desira baten parte da, garrantzitsua bakarrik izatearen tasun bat den neurrian, sentipen bat, esanahi bat, egina izan den denbora deskribatu eta denborak deskribatua izan den ezagutze bat; gizatiarra den zerbait.

Sinetsita nago margolanak aurrez aurre ikusi beharreko gauza fisikoak direla.

Julian Schnabel

Tabakalerak, Donostiako Kultura Garaikideko Nazioarteko Guneak, Julian Schnabel (Brooklyn, New York, 1951) artista polifazetikoaren **Summer** (Uda) erakusketa aurkeztu nahi du. Artistak **formatu handian egindako hirurogei margolanetik gora eta hainbat eskultura** bildu dira erakusketan eta, laurogeiko hamarkadan abiatu eta gaurko egunera arteko ibilbide bat agertuko da Tabakalera eraikinaren beheko solairua ia osorik bete duten lan horien bidez.

Kultura Garaikideko Nazioarteko Gunea bilakatzeko denbora gutxi barru birmoldaketa jasango duen **lehengo tabako fabrikako espazioak, artean, bere horretan mantentzen direlarik**, eraikinarekin 'elkarrizketan' antolatu du Julian Schnabel artistak bere lanen erakusketa. Erromako Palazzo Venezian, Milan-eko Rotonda della Besana-n eta Alemaniako Schloss Dernenburgen egindako erakusketen sail berean sartzen da proiektua; hain zuzen ere, horietan artistak baliatu izan dituen eraikinek izaera berezia dute, tokian tokiko ikusleentzat memoriaz eta sinbolismoz betea. Erakusketarekin batera argitara eman den liburuan Max Hollein-ek nabarmendu nahi izan du Julian Schnabelentzat artelanak *"ikusgai jartzea eta testuinguru espazialaren nozioak artelan baten eboluzio amaigabeko parte beti aldakorra direla"* eta, horregatik aukeratzen ditu bere lanak ikusgai jartzeko *"leku historiko berebizikoak (Sevillako Cuartel del Carmen, Donostiako Tabacalera edo Erromako Palazzo Venezia), Schnabelek gogoko du aldaketa efektua, arkitekturak margolan bati eman diezaiokeen interpretazioa, margolanaren eta lekuaren arteko ezkontza"*.

Erakusketaren bidez agerian jartzen da artistak egindako lanean, beti ere margolariaren ikuspuntua nagusi delarik – *"Neure burua margolari ikusten dut, eskulturak egiten baditut ere"*, dagoen erregistro aniztasuna; eta hizkuntza desberdinak lantzeari ekiterakoan duen erabateko askatasuna – *"Ez neukan margolanak izan zitezkeen edo izan beharko luketen irudi eta materialen nozio hierarkizaturik. Eta orain ere ez... Kontua da ez dagoela margolan abstrakturik, figurarik agertzen ez bada ere. Margolan batek irudi abstraktu bat izan dezake, baina horrek ez du margolana abstraktu egiten. Margolanak gauza erabilgarriak dira."*; baita ere, materialak eta formatuak ikertzeko egindako saioak, zerikusia izan dutenak artelana ikusleak aurrean izango duen errealitate estetiko eta fisikotzat hartzearekin.

Honako erakusketa honekin batera, Tabakalerak **Skira** argialetxearekin katalogo bat eman du argitara. Euskaraz eta gaztelaniaz editatuta dagoen liburu horretan Julian Schnabelek azkeneko hogeita hamar urteotan egindako lana aztertu da. Salgai egongo da Tabakalera eraikinean bertan, eta baita liburu denda espezializatuetan ere.

Erakusketak eta Donostiako Nazioarteko Zinemaldiak bat egingo dute -Julian Schnabel dugu, hain zuzen ere, zinemaldiak nazioartean duen enbaxadore adierazgarrienetako bat- eta, nolabait, uztartuta geratuko dira artista horrengan ezagunenak diren bi alderdi sortzaileak, hau da, margogintza eta zinema. Aipatu beharra dago, zinemagintzan ere nazioarte mailan txalotua izan den bilakaera egin duela Schnabelek eta, horren erakusgarri da, duela gutxi Cannes-eko zinemaldian zuzendari onenaren saria jaso izana, "The Diving Bell and the butterfly" filmarekin.



SUMMER


Uda. Udan egiten ditut margolan gehienak. Beti egin dut hala, txikitandik. Oraindik usain dezaket osaba Jacken atzeko lorategiko arrosen lurrina. Nire estudioak ez du teilaturik. Hobeto ikusten dut, gehiago urrun naiteke nire margolanetatik, argi arras desberdinetan ikusi, eguneko garai desberdinetan. Eguraldiak ere eragina du margolanetan, orbanak, euria, lizuna, eguzkiak argitua, haizeak, naturak erabiliak, hasieran interferitu eta gero lagundu egiten duen nahasketa. Sistema aktibatua da. Material askatasuna uretan eta eguzki argitan girotua, udak joan, udak etorri.

Julian Schnabel

Erakusketak hartu duen izenak, **Summer**, artistak lan egiteko duen moduarekin zerikusia du. Schnabelentzat uda urtarorik emankorrena da kanpoan lan egin ahal izaten duelako eta, hala, naturari berari margolanetan sartzeko bidea ematen diolako.

Schnabelek erakusketara ekarri ditu **Europako nahiz Estatu Batuetako hainbat bildumagile pribaturen esku** –besteak beste, Bruno Bischofberger, Gian Enzo Sperone eta Marco Voena- dauden lan hautatuak eta bere bildumako hainbat lan. **Ikusgai egongo dira beste inoiz erakutsi** ez diren lan batzuk, zenbait lan berri, esate baterako, 2006ko *Flaubert's Letters to his Mother* edo *Surfer Painting* sailekoak, eta lehenago elkarren ondoan erakutsi ez diren sailak, 1996ko *Hat Full of Rain* eta 1989ko *Treatise of Melancholia* sailak, esate baterako. Eskulturak ere badira erakusketan, *Oliver Cromwell*, *Si Tacuisses* eta *Esso Ess*, besteak beste. Lanetako batzuk Donostian bertan egindakoak dira, izan ere, artistak etxea baitu hirian.

Horren guztiaren emaitza oparotasunez beteriko lan bat da, indar handikoa eta adiera maila anitzak eskaintzen dituena.





To Stella, 1988
Olioa, igeltsua olana iragazgaitzean
Nina Baier bilduma, Zurich



The Red Sky, 1984
Olioa, platerak, masilla betegarria egur gainean
Bilduma pribatua



Portrait of José Ramón Antero, 1997
Olioa, erretxina, esmaltea oihalaren gainean
Bilduma pribatua



Untitled (Treatise on Melancholia), 1989
Olioa, igeltsua olana iragazgaitzean
Artistaren bilduma



Flaubert's Letters to His Mother, 2005
Tinta poliesterrean
Artistaren bilduma


Hat Full of Rain, 1996

Olioa eta magic marker olana iragazgaitz gainean
Artistaren bilduma



Olatz 1, 1991

Olioa, igeltsua, erretxina, ezarkiak olana gainean
Artistaren bilduma



Untitled (Girl With No Eyes), 2001

Olioa eta argizaria oihal gainean
Artistaren bilduma



Portrait of Stella Madrid and Lola Montes Schnabel, 1997

Olioa eta erretxina oihal gainean
Jacqueline Schnabel bilduma



Si tacuisses, 1990

Brontzea patina eta olioarekin
Bruno Bischofberger galeria, Zurich



ARTISTA ETA BERE ARTELANAK

Julian Schnabel 1951n jaio zen Brooklyn-en (New York). 1969 eta 1973. urte bitartean Arte Ederrak ikasi zituen Houstongo unibertsitatean. Geroago, New York hiriko Whitney Independent Study Program delakoan onartu zuten. Bere ibilbideko lehenengo urteetan hainbat artista ezagutu eta, gutxika, hiriko artisten giroan murgilduz joan zen.

Bakarkako lehenengo erakusketa 1976an egin zuen, Houstongo (Texas) Contemporary Arts Museum-en. Urte horretan bertan, hainbat hilabetez luzatuko zen bidaia egin zuen Europan zehar eta, Italiako egonaldian, arreta bereziz aztertu zituen Fra Angelico, Giotto eta Caravaggioren lanak. Bartzelona lehenbiziko aldiz 1978. urtean ezagutu zuen eta Antoni Gaudí arkitektoaren lanagatik agertu zuen, bereziki, interesa. Bidaia horren ostekoak dira “platerekin egindako pintura” teknika berria erabiliz egindako lanak. ***“Plater-margolanak egin nituenean margolanaren azala apurtu nahi nuen, eta gogoko nuen plateren distiraren eta margolanaren beste parteen arteko disonantzia”.***

1979. urtean New York hiriko hainbat galeriatan egon ziren ikusgai argizarizko pinturaz egindako bere lanak eta kritikak abegi ona eman zion, bere lana “pinturaren itzulera” zela adieraziz. Orduan, pinturaren helburuei eta etorkizunari buruzko eztabaida zabal bat abiarazi zuten eta Julian Schnabelen lanak, besteak beste, halako eztabaida sutsuetan ardatz bilakatu ziren.

1980. urtean Veneziako bienalean parte hartu zuen lehenbiziko aldiz (1982koan ere parte hartu zuen) eta, harekin batera, besteak beste, lagun egin zuen Francesco Clemente, eta Anselm Kiefer edo Georg Baselitz ere egon ziren. Pintura “basatia”, bultzadaka egindakoa, Schnabelek burututako lanaren osagai garrantzitsua bihurtuko da eta, hein horretan, zenbait kritikok bere lana “neoespresionismoan” sailkatzen dute. ***“Barrenekin pintatzea ez da sekula izan ideia interesgarria, edo inoiz margolan bat interesgarri egin. Sentimendua eta adimena ezin bereiz daitezke. Ildo horretan, neo-espresionismoa ez da existitzen; ez da inoiz existitu.”***

1981ean New Yorkeko Whitney Biennial azokan parte hartu zuen, baita Londresko Royal Academy of Arts-eko “A New Spirit in Painting” talde erakusketan ere; bertan bildu ziren, hain zuzen ere, hainbat margolari “klasikoren” lanak –Willem de Kooning, Andy Warhol, Francis Bacon, Cy Twombly, Robert Ryman edo Frank Stella –eta, aldi berean, horiekin alderatuta, gazte xamarak ziren Europako nahiz Iparramerikako artisten lanak –Gerhard Richter, A.R. Penck, Sigmar Polke, Markus Lüpertz, Immendorf eta Brice Marden. Schnabel bera izan zen erakusketako margolari gazteena.

1982an Amsterdam-eko Stedelijk museoan eta Londresko Tate Gallery-n erakutsi zituen bere lanak eta horiek izan ziren Europako museoetan bakarka egindako bere lehenbiziko erakusketak.

Bere lanaren osagai funtsezkoa bihurtu zen topatutako objektuak, edo objektu erabiliak edo denborak aldatuak, edo objektu historikoak margoetara gaineratzeko kontzeptua. ***“Existitzen diren materialak erabiltzeak etnografikotasun maila bat ematen dio lanari; alegia, egiazko leku eta denbora bat txertatzen du errealtate estetikoan.”*** Hala, Japoniako Kabuki antzerkian erabiltzen ziren oihalekin edo boxeo ring bateko estaldura

zahar batez baliatuz egin zituen zenbait lan. “Historia bat” duten materialak interesatzen zaizkio eta halakoak erabiltzean uzten diren aztarnek lanari ezinbestean bakarra den izaera ematen diotela uste du.

1987 eta 1989 urte bitartean, bai Europan bai Estatu Batuetan, Schnabelen lanaren atzerabegirako erakusketa garrantzitsuak egin ziren, esate baterako, Londresko Whitechapel Arte Gallery-n, Pariseko Centre Pompidou-n, Düsseldorfeko Kunsthalle-n edo Houstongo Museum of Fine Arts delakoan. 1994an ere, halako atzerabegirakoak antolatu zituzten Monterreyn eta Mexiko Hiriko museoetan.

1995en *Basquiat* izeneko filmaren gidioa idatzi eta filma zuzendu zuen. Filmak azaltzen duena New Yorkeko margolari gazte baten bizitza da, bapatean izar ospetsu bilakatu eta 27 urterekin gaindosi batek hil zuena. Zinegile lanean egindako lehen esperientzia hori izan da zinemagintzan egin duen ibilbide arrakastatsuen lehen urratsa; beste bi film ere egin ditu, artean, *Before the night falls* (1999) eta *The diving bell and the butterfly* (2007). Azken hori dela eta, 2007ko Cannes-ko zinemaldian zuzendari onenaren saria irabazi zuen.

2007. urtean espazio berezietan antolatu ditu beste zenbait erakusketa: Erromako Palazzo Venezian, Milaneko Rotonda della Via Besanan eta Derneburg (Alemania) hiriko Schloss Derneburgen. Aldi berean, Beijing-eko (Txina) nazioarteko artearen museoan ere ikusgai dago bere lana.

Gaur egun, Julian Schnabel New Yorken ari da bizitzen eta lanean, baita Montauk-en, Long Island-en eta Donostian ere.

SUMMER – KATALOGOA

Erakusketarekin batera Tabakalerak eta Skira argialetxeak liburu bat eman dute argitara. Han bildu dira William Gaddis (1922–1998), idazle estatubatuarra -*The Recognitions*-en egilea, Max Hollein, Frankfurtoko Schirn Kunsthalle-ko zuzendaria, David Moos Ontarioko Art Gallery-ko arte garaikidearen kontserbatzaile, José Férrez Kuri, William Burroughs artxiboko kontserbatzailea eta Bruce Ferguson, Ontarioko Art Galleryko erakusketen zuzendariaren testuak. Artistak azken hogeita hamar urteotan egindako lana aztertu da euskaraz eta gaztelaniaz editatuta dagoen liburuan. Tabakalera eraikinean bertan egongo da salgai, baita espezializatutako liburu dendetan ere.

Max Hollein Frankfurtoko Schirn Kunsthalleko zuzendariak **idatzitako testuaren zatia:**

(...) Schnabel, arkitektura eta diseinuaren gaineko jakintza apartaren jabea den margolaria, espazio horien tasun emozionala, historian izan duten une espezifikoak eta, oroipena, substantzia eta sentipen espazial berezien eraikuntza gisa, haien izate jarraitua bilatzen ari da. Gehien interesatzen zaion arkitektura, antza, denbora gelditu den lekuetakoa da, iragandako denbora arnastu arren, edertasun denboragabea, garrantzia eta jarrera garaikidea duten lekuetakoa


(...) Schnabelek existitzen den materiala erabiltzen duen bezala, hala nola zeramika, adarrak, egur puskak edo feltroa, bere margolanen osagai garrantzitsu gisa, existitzen diren eta batzuetan jada historia nahasia izan duten azaletan ere pintatzen du, hala nola Kabuki antzerkiko atzealdeak, boxeo ring baten lur-estalkiak, olana irazgaitzak edo surf taulak. Schnabelek kokapen berebiziko eta ezohikoa erabiltzen du bere margolanak instalatzeko eta hartara haien zentzua zehazteko...

TABACALERA

XX. mendean zehar Tabakalera tabako lantegia izan zen. Itxi ondoren, euskal erakundeek –Donostiako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak– eraikina berreskuratu egin zuten XXI. mendeko kulturaren gune bihurtzeko asmoz.

Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa izango da, ikusmenezko kulturaren espezializatua. Arte garaikidea, zinemagintza, telebista eta diseinuak hartzen dituen alderdi anitzak uztartuko ditu. Gainera, kultura garaikideak giltzarriztat dituen beste hainbat arloekin harremanetan jarriko da ikusmenezko kultura, esate baterako, soinuaren kultura, zientzia eta gastronomiarekin. Ekoizpen gunea izango da; erakusketak, proiektzioak eta emanaldiak prestatuko dituen agertokia izango da; hausnarketarako gunea; eztabaida foroak eta ideiak partekatzeko lekua; prestakuntza espezializatua eta prestakuntza irekia emateko gunea izango da, baita ere, artxiboa eratu eta hedatuko duen gunea. Tabakalera aro digitalean eta aro digitalerako diseinatu den kultura ekipamendua da.

Julian Schnabelen mailako artistak eraturako erakusketaren bidez eraikin paregabe honen espazioak balioan jarri eta Tabakalera munduari ezagutzera emateko atak zabaldu dira.



T Tabacalera Donostia
Duque de Mandas 52
20012 Donostia – San Sebastián
T +34 943 011 311 / F +34 943 011 312
info@tabacalera.eu
www.tabacalera.eu

K Kursaal
VE Victoria Eugenia
KM Koldo Mitxelena
R Renfe